


ezagutzen al
duzu Donostia?

Euskadi Plaza eta Erresponsuenea



Euskadi Plaza edo Erresponsuenea Santa Katalina zubitik ikusia.

Santa Katalina zubiburuan. Urumea ibaiaren eskuin aldeko urbazterrean dago Euskadi Plaza. Gros auzoko benetako «ataria» edo sarrera da. Plaza honetan dute hasiera Ramon Maria Lili, Kolon, Mirakruz, Iztueta eta Frantzia pasealeku eta kaleek. Plaza eder honi 1913. urtean «Plaza de Vasconia» izena jartzea erabaki zen. Serapio Mujikak 1916ko «Las calles de San Sebastián» liburuan dioenez, Udalak honela hartu zuen erabakia: «para recordar al que entra en la población (Donostian sartzen denari, alegia)... algo que se siente

y se ama y llega al fondo de nuestro ser (Euskal Herria, noski)». 1913ko urtarrilaren 3an plaza Hego Euskal Herriko + diputazioen ordezkarien eta probintzi hauetako + hiriburuetakako alkateen aurrean inauguratu zen. 1948ko abenduaren 20an izena aldatu eta «Plaza del 13 de septiembre» izendatu zen. Garai haietako Udalak izena aldatu zion plaza honi eta aipatutako hori jarri «en conmemoración de la fecha en que fue San Sebastian liberada del dominio rojo por las tropas nacionales». Gaur duen izena 1979ko uztailaren 9an Udalak hartu zuen

erabakiaren ondoren ezarria da.

Serapio Mujikak izena hirian sartzen zenari «oroitarazteko» zela zioen, baina herritarrek guztiz aparteko beste deitura bat erabiltzen zuten lekua izendatzeko: *Erresponsuenea*. Zer dela eta izengoiti harrigarri hau? Ba *Pollueko* hilerrirako bidean kaleetan barrena oinez etortzen ziren «kondukzioak» (eta garai batean gehienak honela etortzen ziren) eta plaza honetan azken adioa ematen zitzaion.

JOSU TELLARIDE
ARGAZKIA: XIMON

La Casa
del Café
- Juan Iriondo S.A. -
DONOSTIA

